

Urteaga eta Iratzederren Ezkila 7

Euskaldunon Egunkaria, 1994-07-05: 2.

Euskal kultura sarri apatzen dugu betea den zerbait balitz bezala, eta gurea eta ezaguna; halere zein aise joaten zaizkigun gogotik gure kultura honi bizitza osoa eskaini dioten artistak. Batzu dagoeneko herioak eramanak, Juan Urteaga musikagilea, esate baterako, eta besteak, kasu honetan oraindik bizirik Beloken euskal lanetan eten gabe ari den Jean Diharze, aita Xabier poeta, hamasei urte zituela (1936) "Aitzol"i olerki ederra eskaini ziona, eta oraindik, adinez gora, liburu eder asko idatzi, Afrikako sufrimendutik pasa eta berriz amairik ez duen lanak berak atxeki eta uzten ez duena. Gaur elkarrekin beste lanak agertu ondoren 7. Ezkila argitaratu nahiean dabiltzanak... baten musika ederra orain hizketan jartzen ari dena. Poesia, Musika, majuskulaz idazten ditugu gehienetan, baina entzun eta irakurtzeko orduan gor eta itsu gara euskaldunok. Askok sortzaileak nortzuk diren ikasteko betarik eta eskolarik ez dugu izan; Juan Urteaga, Balmasedan 1914 jaioa eta Parisen organoa irakasle handiekin ikasketak egin eta gregorianoan doktoratua, Donostiako Schola Cantorum sortu zuena. "Iratzeder" berriz, Donibane Lohitzunen 1920 jaio, Ustaritzeko eta Baionako apaiztegietan ikasten egon eta Beloken Aita Xabier bezala fraidetua. Eta biak orain elkarrekin "Etxe txokoan" izeneko lana sortu eta argitaratu nahiean, argitarazlerik aurki ezin eta 300 ale besterik ez bada ere erosle aurkitu nahi dituztenak. Marka izango litzateke behar duten apur hau ez lortzea.